

Azken egunotan atxilotutako sei lagunetatik bost aske dira

Azken atxilotua gaur pasatuko da epailearen aurretik

Asteartean hasitako polizi operazioaren ondorioz atxilotutako sei lagunetatik bat aske utzi dute epailearen aurretik pasatu gabe; beste bi epailearen aurretik pasatu ondoren kargurik gabe geratu dira libre, eta beste bi fidantzapean. Azken atxilotua gaur pasatuko da epailearen aurretik.

Erredakzioa / Donostia

ATZO epailearen aurretik pasatu ziren Donostian atxilotutako Juan Carlos Herrador eta Bizkaian atxilotutako Josu Larreategi eta Andres Moran. Lehena inolako kargurik gabe geratu zen aske Entzutegi Nazionalan deklaratu ostean. Josu Larreategi, berriz, 150.000 pezetako fidantza ordaindu ondoren utzi zuten aske. Andres Morani, berriz, epaileak 500.000 pezetako fidantza ezarri zion, eta lerro hauek idazteko unean espetxean-bazen ere, dirua biltzen ari ziren eta ondorengo orduetan kalean izango zen.

Atzo atxiloturik geratu zen pertsona bakarra Alberto Martinez zen. Martinez gaur igaroko da Entzutegi Nazionalako epailearen aurretik.

Gogoratu behar polizi operazio honetan Donostian atxilotutako beste bi lagunak, Faustino Agnaga eta Olatz Garmendia, ostegunean utzi zituztela aske. Lehena epailearen aurretik pasatu gabe geratu zen aske, eta bigarrena epailearen aurretik igaro



Juan Maria Jauregik garrantzitsutzat jo zituen atxilotetak.

GILLENEA

ondoren kargurik gabe utzi zuten libre. Atxilotutako guztiek ukatu egin dute ETArekin zerikusirik izatea.

EGUNKARIAK jasotako informazioaren arabera, Olatz Garmendia eta Juan Carlos Herradorrek Guardia Zibilaren esku jasotako tratu txarrak salatu dituzte. Beste atxilotuek jasandako tratuari buruzko informaziorik ez zegoen lerro hauek idazteko unean.

Polizi operazioa Donostiako Parte Zaharrean hasi zen, Juan Carlos Herradorren atxiloteta eta Herria eta Urraki tabernen miaketarekin. Herradorri kale biolentzia babestea egotzi zion Poliziak. Gipuzkoan atxilotutako beste biei, berriz, ETAko azpiegitura eta informazio aparatuko kide izatea leporatu zieten. Hala ere, ez dute inolako frogarik lortu. Bizkaian atxilotutakoei, ordea, Bizkaia komandokoari laguntza ematea leporatu diete.

Juan Mari Jauregi bereari eutsiz • Gipuzkoan egindako operazioan inor espetxeratu ez eta frogarik lortu ez bada ere, Gipuzkoako gobernadore zibilak atxilotuak epailearen aurretik igaro baino lehen bere epaia emana zuten. Jauregik operazioa «beharrezkotzat» jo zuen. «Legezko komandoek baino kalte gehiago eragiten dute gazteek eginiko sabotajeek, eta hain zuzen operazio hau horren bultzatzaileak atxilotzeko egin da». Ildo horretan, Donostiako Parte Zaharreko lkatz kalean izandako operazioa aipatu zuen, eta kale hori «Jarrai eta Herri Batasunaren kale sakratua» dela esan zuen. Kale horretako Urraki tabernako langile den Juan Carlos Herradorri buruz, Jauregik zera adierazi zuen: «Herrador Donostiako Parte Zaharreko kale biolentzia guztia babesten dutenetako bat dela ziur gaude».

Roberto Murgiondo konfinatu egin du Frantziako Gobernuak

Lutxi Fourcade / Baiona - Roberto Murgiondo Garcia Saint Martin de Reko presondegitik atera zuten atzo goizean, eta Frantziako eskualderen batean konfinatu du Administrazioak. Hasieran Normandiara eramana ote zuten zabaldu zen, baina Gobernuak ukatu egin zuen hori. Dena den, ez da jakin ahal izan Murgiondo nora eramana duten. Euskal preso honen egoera berezia azpimarratu zuen atzo Errefuxiatu eta Presoen Sustengu Komiteak, La Rochelleko auzitegiak, 1995eko maiatzean, kanporatzeko agindua eman baitzuen. Poliziak atxilotu zuen Murgiondo 1990eko azaroaren 17an St Martin de Seig-

nanx-en, Alberto Plazaola, Simone Odriozola eta Carmen Gisasolarekin batera. Zazpi urteko presondegi zigorra ezarri zion Parisiko auzitegiak, eta bere kondena amaitu zuen atzo goizean. Murgiondoren askatzea ospatzeko Narbaizetik zetorren autobusa presondegi aurrera iritsi zen goizeko zapietan baina Poliziak jadanik eramana zuten, familia ere abisatu gabe. Aurreko egunetan hainbat mobilizazio egin dira Britainian Murgiondoren kasua salatzeke, eta Denis Langlois buru zuen ordezkaritza batek salaketa pausatu zuen Barne Ministerioan. Frantziako presondegitatik atera behar duten beste zazpi euskal

preso Murgiondoren egoeran daude, eta horietako bat martxoaren 16an askatuko dute, Theodore Meabe Berteanok zazpi urteko presondegi zigorra amaituko baitu. Beraien egoera kezagarria dela salatu zuen EPSKk, «tortura kasu ugari baitira oraindik Espainian», eta erne egoteko eskatu zuen. «Mobilizazioak beharrezkoak izanen dira Frantziako Estatuak ez ditzan Espainiaren eskuetan utzi». Bestalde, *Presoak Euskal Herrira* kanpainaren kariatara Okzitaniako Tolosa ondoan dagoen presondegiarako martxa eginen dute bihar, EPSK, CAR, Ahai-deak eta Gureak sustengu elkarteek antola-

turik. Gose greban dauden presoekiko elkartasunez, Baionako San Andres plazatik abiatuko dira autobusak, goizeko bederatzia eta erdietan. Martxa orenbata aldera iritsiko da Le Mureteko presondegiara. Paretan aitzinean, bertan gose greban dauden Joseba Begoña eta Josu Urrutikoetxea euskal preso politikoei omenaldia egingen zaie, txalaparta, txistulari eta guzti. Ondotik, berriz, manifestaldia egingen dute Tolosan bertan, auzitegi aitzinetik abiatuko dena, arratsaldeko hiru-urretan. Bestalde, heldu den asteleheneetik goiti bi asteke gose greba hasiko dute Baionan, presoekiko elkartasunez. X

HBk EAEko Auzitegi Nagusira ekarri nahi du bidoen auzia

Auzitegi Gorenari dagokion galdetu du Garzonek

Erredakzioa / Bilbo

JON IDIGORAS espetxean iraunarazi eta Herri Batasunako Mahai Nazionala auzitara eramana dezakeen kasua EAEko Auzitegi Nagusiaren esku uzteko eskatu zuen iragan astelehenean defentsak. Espainiako Entzutegi Nazionalako Baltasar Garzonek EAE eta Nafarroako parlamentuetan bildutako informazioaren arabera, zazpi dira Mahai Nazionalako parlamentarioak. Nafarroan Adolfo Araiz eta Floren Aoz dira aforatuak. Euskal Autonomi Elkartearen Mati Iturralde, Itzjar Aizpurua, Jose Maria Olarra, Tasio Erkizia eta Karmelo Landa. Autonomi elkarte bitako parlamentarioak izanik auzia Espainiako Auzitegi Gorenaren Penaleko Salaren kompetentzia denentz argi dezan eskatu dio Garzonek auzian diharduen fiskalari. Defentsak, hala ere, uste du forudun auzipetu gehien dituen auzitegiari dagokiola kasua aztertzea.

Atzo ezagutzera eman zen probidentziaren arabera, Herri Batasunako Mahai Nazionalako kide guztiak akusa ditzakete talde armatuari laguntza eman izanaz, ETaren *Alternatiba Demokratikoa* bideo formatuan hedatzen saiatzeagatik. Idazki horren arabera, badaude aztarnak delituzko jokabidea egoteko HBko buruzagi guztiei. Fiskalak informazioa eman beharko du, bidenabar, HBk egin-

dako eskariaz, hots, auzia EAEko Auzitegi Nagusiaren esku uzteaz, auzipetuak izan daitezkeen aforatu gehienak EAEko parlamentarioak baitira.

Jon Idigorasek kartzelan dirau, ez baitu ordaindu Baltasar Garzonek behin-behineko askatasunean uzteko ezarri zion 300 milioi pezetako fidantza (12 milioi libera). Herenegun Garzonek atzera bota zuen Idigorasen defentsak beronen kartzelaratzearen aurka aurkeztutako errekurtsioa, eta baita fidantza murrizteko eskaria ere. HBko bozeramailearen defentsak 5 eguneko epea du apelazio errekurtsioa aurkezteko.

Zarzuclak eta Moncloak jaso dute ETaren bideoa • Espainiako Erregearentzat eta Felipe Gonzalezentzat HBk ETaren bideoaren kopia bana bidali zuen Zarzuela eta Moncloako jauregietara, eta atzo bideoa jaso dutelako agiria iritsi zitzaion HBri. Espainiako Gobernuak lehendakariari bidalitako kopia otsailaren 2an jaso zuten Moncloan, eta Espainiako Erregeari bidalitakoa otsailaren 21ean. Aipatutako bideoan ETako hiru kidek iazko apirilko agirian plazaratutako proposamena (*Alternatiba Demokratikoa* deritzona) azaltzen dute. Hori hedatzearen kontrako ekinbide judizialen berri izatean, HBk eskura zituen bi kopia bakarrak Espainiako Erregeari eta Gobernuak lehendakariari bidali zien. X

Baliteke Urralbururen auziko epaileak datu berriak izatea

Sekretuan gorde du lekuko baten deklarazioa

Erredakzioa / Iruñea

FRANCISO IRISARRI Irurtzun-Andoain autobian azpikontrata moduan aritu zen enpresariak Urralburu eta Aragonen auzia ikertzen duen epailearen aurrean deklaratu zuen atzo. Antza denez, Irisarrik datu berriak eman zituzten epaileari.

Epaileak ez zien deklarazioaren kopiarik eman auzian parte diren abokatuei, gainerako deklarazioekin egiten duen moduan. Epaileak sekretuan gorde zuen deklarazioa, eta ohetik atera zuen Javier Muñoz fiskala. Hau ondorezik zegoen, baina Juan Manuel Fernandez epailearen deia jaso bezain laster epaitegian agertu zen. Epailea eta bera Irisarriren deklarazioaren kopia batekin atera ziren epaitegitik, azalpenik eman gabe.

Epailearen jokaerak era guztietako zurrumurruak sortu zituen. Zenbaiten ustez, Irisarrik orain arte auzi honetan inplikatu agertu ez den norbait nahastu du bere deklarazioan, eta epaileak horregatik gorde nahi izan du sekretua.

Irisarrik akusazio partikular gisa agertu nahi izan zuen

Urralbururen auzian, Aragon Herrilantetako sailburu zenean iruzur egin zituela uste baitu. Epaileak ez zuen Irisarriren eskaera onartu, baina deklaratzera deitu zuen eman beharreko azalpenak eman zitzaizkion.

Irisarrik Lain eta Obrascón enpresek iruzur egin zutela salatu zuen aspaldi. Bi enpresa horiek autobioiako bi fase egiteko adjudikazioa lortu zuten, ustez Aragoni eta Urralbururi diru komisioak ordaindu ondoren. Lainek eta Obrascónek beste hainbat enpresa azpikontratu zituzten lanak burutzeko. Aldi berean, Aragonek Irisarri konbentzitu zuen azpikontrata gisa aritzeko, bizkor aberasteko zela esanez. Gainera, Gonzalez de Lara Guardia Zibileko koronelak babesa emango ziola agindu zion Irisarri. Honek onartu egin zuen, baina berehala damutu zitzaion, Lainek eta Obrascónek ez baitzieten agindutakoa ordaintzen azpikontratutako enpresei. Irisarriren arabera, enpresa horiek gutxienez 110 milioi pezeta hartu zituzten bigegabeki. Jose Manuel Perez Huarte enpresako ordezkariek ere epailearen aurrean deklaratu zuen atzo. X